

EFEOeko LIBURUTEGIAREN ERABILPEN ARAUDIA (2008ko Urtarrilaren 19ko Gobernu Batzordean erabakita)

Araudi honen helburua, Elkargoaren Liburutegiko fondo bibliografiko eta dokumentalak segurtasun handienaz kontserbatzea da eta, horrez gain, etekin handiena ateratzea, elkargokideei, administrazioko pertsonalari eta Elkargoko zerbitzuei sarrera erraztuz eta interesatzen zaizkien dokumentuak aurkitzeko eta eskuratzeko erraztasunak emanez.

KOKAPENA

Araudi hau onartua izan den datan, Liburutegia Euskal Herriko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren egoitzan dago, Ibarrekolanda kalea, 15, 48014 Bilbo.

PERTSONALA

Katalogatzea eta sailkapena Liburutegi Batzordeko arduradunaren eginkizuna dira, EFEOeko idazkariaren gainbegiratzearen pean. Horretarako izendatzen den Elkargoko pertsonala arduratuko da maileguak egiteaz Elkargoaren laneko ordutegiaren barruan.

FONDO BIBLIOGRAFIKOAK

Materiala, edozein dela ere bere euskarria, datu base informatizatu batean dago erregistratua, katalogatua eta sailkatua eta, espezializazio adarren arabera, apalategietan ordenatua.

Aldizkariak eta buletinak, hauek ere automatizatuak, alfabetoaren arabera daude antolaturik eta, antolaketa horren barruan, kronologikoki.

ERABILTZAILEAK ETA SARBIDE ARAUAK

Elkargoko Liburutegiaren erabiltzailatzat hartuko da bere elkargokide kuoten ordainketan egunera dagoen edozein elkargokide, eta hori frogatzeko aski izango du bere elkargokide txartela aurkeztea.

Era berean, Liburutegiaren erabiltzailatzat hartzen dira Elkargo Profesionaleko administrazioko eta zerbitzuetako langileak, bai eta elkargokide jubilatuak ere, hauek, identifikatzeko, beren DNI txartela aurkeztu beharko dutelarik.

Txartela pertsonal eta besterenezina da. Ezingo da liburutegitik atera beste inoren DNI edo txartelarekin, edo beroriek aurkeztu gabe.

Txartela galduz gero, erabiltzaileak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du beste txartel baten eskabidea egina duela adierazten duena.

MAILEGU MODALITATEAK

Maileguen helburua Liburutegiko fondo bibliografikoen kontsulta ahalbidetzea da. Honako modalitate hauek ezarri dira:

- **Aretorako mailegua:** Irakurgelan Liburutegiko fondo guztiak kontsultatzea ahalbidetzen du, denak salbuespen gabe.
- **Eramateko maileguak:** Erabiltzaileak behar dituen material bibliografikoak Liburutegitik denboraldi epe jakin baterako eramatea ahalbidetzen du.
- **Urrutiko mailegua:** Elkargoak liburuak elkargokideak esaten digun helbidera bidaltzeko aukera ematen du, denbora determinatu batean edukitzeko. Elkargoak liburuak/k bidaltzen dio/dizkio elkargokideari eta honek Elkargorako bueltaketaz arduratu behar da.

MAILEGUAREN BALDINTZAK

Mailegu modalitateak

Etixerako mailegutik salbuetsiak geratzen dira eta irakurgelan bakarrik kontsultatu ahal izango dira honako lan hauek:

- Irakaskuntza materiala
- Erreferentziako liburuak (entziklopediak, hiztegiak, atlasak, katalogoak eta bibliografiak)
- Argitalpen periodikoak eta aldizkari zientifikoak
- Zenbait aparteko ezaugarrietako fondo edo balio zein esangura berezia dutenak.

Batera mailega daitezkeen obren gehieneko kopurua

Erabiltzaileek gehienez ere aldiko bi obra atera ahal izango dituzte etxera eramateko, aldeaz aurretik bakoitzari dagokion inprimaki normalizatua beteta edota Internet bidez.

Maileguaren iraupena

Irakurgelarako maileguk ez daukate denbora eperik Elkargoko idazkaritzaren laneko ordutegiaren barruan.

Ettxera eramateko maileguak 15 egun naturaleko eperako egingo dira, aldeaz aurretik dagokien inprimaki normalizatua bete eta pertsona arduradunari entregatu ondoren; dena dela, epe hori beste 15 egun natural luzatu ahal izango da posta elektronikoaren bidez (erabiltzailearen datuak eta liburuaren datuak adieraziz), baina gehienez ere bi bider, baldin eta beste erabiltzailearen batek material hori eskatu ez badu.

Materialaren erreserba

Mailegaturiko obraren bategatik interesaturik egonez gero, beronen erreserba egin ahal izango da, itzulia izan ondoren erabiltzaileak eskuratu ahal izateko. Kasu honetan lehentasuna emango zaio erreserbari eta maileguaren epealdia ezingo da luzatu.

Gehienez hiru obra erreserbatu ahal izango dira. Obra bakoitzak hiru erreserba bakarrik eduki ahal izango ditu indarrean. Erreserbatutako obra bat lehen bi egunetan erretiratu ez bada, apalategietara itzuliko da eta erreserba eskubideak galduko dira.

OBRA ESKURATU BERRIAK

Liburutegiak hiruhilabetero argitaratuko du atal bat Elkarberri buletinean erosita edo dohaintzaz eskuratu diren material guztien berri emanez.

Liburu eta aldizkari berrien zerrenda alfabetikoki ordenaturik argitaratuko da, egileen, izenburuen edo gaien arabera.

Zerrenda hori Elkargoaren web gunean ere agertuko da.

DESIDERATAK

Baldin Liburutegiak ez badauka erabiltzaileak interesgarri deritzon materialen bat, eros dezan eskatu ahal izango du, dagokion inprimakia beteta Elkargora bidaliz.

FOTOKOPIAK

Oraingoz, Elkargoaren Egoitzan ez da egingo Liburutegian dauden obra eta dokumentuen fotokopiarik. Halere badago aukera Elkargoko bulegoetatik kanpo erreproduzioren bat egiteko interesatuak fidantza gisa bere NAN txartela idazkaritzan utzita, zeina berriro itzuliko zaion materiala gestio horretarako utzi zaion egoera berean itzultzen duela egiaztatatu ondoren.

ORDUTEGIA

Zerbitzu honetarako sarbidea bat etorriko da idazkaritzak astelehenetik ostiralera publikoaren atentziorako daukan ordutegiarekin.

ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK

1. Erabiltzaileek erantzun beharko dute maileguz uzten zaien materialaz.
2. Maileguz jasotako obra galdu edo hondatuz gero, argitalpen bereko beste ale batez ordezkatu beharko dute. Agortua legokeen kasuan Liburutegiak proposatuko dion antzeko ezaugarriak dituen beste bat erosi beharko du. Jakinarazpenaren ondorengo aste betean agindutakoa egingo ez balu, Elkargoak elkargokidearen banku kontura zor-agiri bat bidaliko du liburuaren prezioarekin. .
3. Maileguz utzitako dokumentuak ezarritako epe barruan itzuli behar dira. Itzultzeko atzerapenak zigortu egingo dira. Honako hauek dira zigorrak:
 - a) Mailegu eskubidearen galera itzulpena atzeratu den beste egun, 15 eguneko gehienekora arte, eta orduan lehenbiziko erreklamazioa helaraziko zaio.
 - b) Erreklamazio berri bat helaraziko zaio lehenbizikoaren ondoren, atzeratzen den aste bakoitzeko, gehienez 3 erreklamazio.
 - c) Baldin aipatu ditugun epeak igarotzean dokumentua itzuli ez bada, galdutzat emango da eta 2. puntuan ezartzen denaren arabera jokatuko da.

Liburutegiaren erabilpenak berekin dakar honako arau hauek onartzen direla, eta Gobernu Batzordeak erabaki ahal izango du erabiltzaile eskubideak aldi baterako kentzea materialaren itzulpenean justifikazio gabeko atzerapenak, edota hondatze zein galerak gertatzen badira.